

EDITORIALA

Irakurri ere gutxi egiten omen da, eta euskarazko liburu eta aldizkariak ere gutxiago. Orain dela lauzpabost urte egiten ziren aurreikuste guztiak nahiko baiezkorrak ziruditen: nonbait garai - txarrenak atzean lagatzen ari ginenenez, etorkizun gertuak kolore - argitsuagoa zuen, ostartearen argiarena gutxienez. Izan ere, uste hori ez da egiaztatu eta, entzuten denez, eguneko giroa larria omen da euskaraz argitaratzen diren liburu eta aldizkari gehienentzat, larria eta iluna.

Non ote dago egoera honen kausa? Zergatik ez dira baieztatu aurreikuste horiek? Nola ekin joera honen aurka? Galdera guz-

ti hauen erantzun bila, saiatzeari derrigorrezkoa dugu eguneko egoerari irtenbide aproposa aurkitu nahi badiogu. Erantzuna ezinbestekoa bada, eta horrelaxe denik ez dugu dudarik egiten, beraren bila saiatzeari ez da pertsona edo talde bakar batek egin - dezakeen lan bakartia, ez horixe! Euskal kulturaren arloan mugitzen eta ahalegintzen diren talde eta erakunde guztien eginkizuna dugu hau, hurrengo urteotan askatu beharko den korapiloa.

Guk geuk ere, Elhuyartarrok, euskal kulturaren uretan murgildurik dagoen talde bat garenez, erantzun horren bila abiatzeko premia ikusi dugu. Hortaz, eta -

egin beharko den analisi orokor hori ukatu gabe, geure buruari be giratzeari eta geure ibilbidea - aztertzeari ekin diogu: alde ba- tetik, bakoitzaren etxea beste - inorena baino hobe ezagutzen de- nez, errazagoa egiten zaigu berta- tik abiatzea beste inondik baino. Bestetik, bidea ibilian-ibilian - egiten omen denez, egokiagoa iru- ditu zaigu gure bide-zidor hau - urratzea, guztientzako errepide - zabal baina teoriko bat proposa- tzea baino.

Elhuyar aldizkaria 1.974 ga- rren urteko uda partean jaio zen. Lehen zenbakiaren editorialean - garbi seinalatzen ziren aldizka- riaren helburuak; ekar ditzagun hona, bada, hango hitzak:

Begien bistan genuen apostua, eupada, oso garbia eta konkretua zen: gai izango al gara zientzi gaiak euska- raz adierazteko? Gure erantzunek gar- bia eta konkretua ere izan nahi zue- nez gero, biderik aproposena ekintza- rena genuen eta aldizkaria ekintza konkretu bat zenez, aldizkariaren bi- dea onartu zen baietz esateko.

Horrelako aldizkariak izan ze- zakeen irukurlego posiblea urria zela ikusiz, interes desberdinak bilduko zituen zerbaiten beharra, gauza ebidentea zen. Hortaz Ikas

tola-mundura, goragoko mailako irakaskuntzara, teknika-mundura eta azken batez Unibertsitate eta ikerketa-arlorra zati bana ematea erabaki genuen, eta hori- xe da hain zuzen gaur eguneko aldizkariaren partiketa ere.

Irakurlegoaren aldetik jaso genuen harrera oso ona izan zen, garaiko egoerari begiratuz ezin hobia esango genuke. Oso denbora gutxian harpidedunen kopurua na- hiko ugaritu zitzaigun eta bi - lehen urtetan oraintxe bertan - ditugun harpidedunen kopurua ia- ia lorturik zegoen. Harrera harri- garri honen arrazoia ez zen se- kreto bat, jakin ere ederki bait genekien gure lanak euskaraz - idatzirik zeudelako zabaltzen - zirela, euskara bera bihurtu zen aldizkariaren funtsa, bere izate- aren azken arrazoia. Guretzat - euskaraz idaztea gure buruari - egindako apostua bazen, irakurle- goak berea egina zuen eupada ho- ri eta aldizkaria jasotzean - baietz esaten ari zen beste mo- du batez. Honekin ez ditugu al- dizkari honen barruan egin diren aportazioak deuseztatu nahi; ge- hiegi litzateke nor bere teila- tuaren aurka harrika ihardutea, fariseismo susmagarria nonbait. Baina "ohorezko salbuéspen" ho- riek alde batera utziz, aldizka-

riaren ibilbidea eta funtsa modu orekatsu batez aztertu nahi bada, Elhuyar aldizkarian euskarari - botatako desafio baten antza, Rubicon baten antza, ikusi dugula - eta dutela onartzeko beharrea - aurkitzen gara.

Editorial honek Elhuyar aldizkariaren hogeitabost ale uzten - ditu bere bizkarrean; eta gauden toki honetatik gure buruari egin genion apostua irabazi dugula - baieztatu daiteke. Egin diren hogei tabost ale horiek gauza bat baieztazen dute gutxienez: zientzi gaiez euskaraz idaztea posible - da. Larramendiren ("el imposible vencido") ametsa parekatu dugu nolabait eta bihotz osoz egindakoa pozgarria dela pentsatu nahi dugu.

Nola uztartu hasierako ikuspegi ilun eta dramatiko hori eta - azken lerrootako giro baiezkorra? Pultsuaren lehenengo saioa gure alde gertatu denez, arrisku handi baten aurrean gaude: bigarren pultsua irabazteko jokabide berdina segitzearen arriskua hain zuzen. Zergatik da arriskugarria jokabide hori? Gure aurrean gaur egun daukagun desafioa oso bestelakoa delako eta egoera desberdinari - harma desberdinez erantzuteko be

harra gauza ebidentea da. Ez dugu, dagoeneko, zientzi gaiak euskaraz ere idatz daitezkeenaz inor asko konbentzitu behar, ez euskaldunak bederen hortaz gaur eguneko egitekoa beste hau da: euskaraz ere - gauza interesgarriak esan daitezkeela frogatzea eta gainera modu atsegina batez adierazteko gai gurela erakustea. Etorkizunari begira eta euskararen egoera normalizatzen bada, ez bada alferrik ari gara etorkizuna asmatzen, heriotza segurua bait da, jendeak ez - ditu euskarazko aldizkariak erositako euskaraz idatzirik daudelako, bertan esaten dena interesgarria delako baizik.

Elhuyar aldizkaria eraberritu nahi izan dugu, urteotan egindako lanak fase oso bat bete badu ere, aurrera begira beste bat irekitzeko beharra somatzen da. Ongi - baino hobeto dakigu, jakin ere, ez zaigula posible izango bat-batean asmo guzti horiek gurea ez den - astoa ez genuke herriko plazan - salmentan jarri nahi. Baina bide berri bati hasiera emateko daukagun borondate sendoa erakutsi nahi genuke lerro hauen bidez. Etorkizun bakarra hortik ikusten dugu eta gaurtik aurrera abiatzeko asmoa azaldu nahi genuke.

Aldaketa-fase guzti honetan - zehar berriro ere irakurle kontzientziatu horren laguntza eskatu beharko dugu, eta halaxe egiten da lerro hauen bitartez; izan ere, egiten den eraberritze hau - dela medio bai irakurlego honen eta baita beste zabalago baten - desioak hobeto beteko direlakoan gaude.

Sar gaitzen, aldaketa honen - arrazoiak azaldu ondoren, eraberritze honen puntuak argitzen. Lehenik eta behin, kuotak mantentzera jo dugu eta horretarako, inpresio-bidea merkatu nahian, "Off-set" delako argitalpen-modura pasatzeko erabakia hartu da; horrelako bidetik gure aldizkariak eskatzen duen argitalpen-kalitatea zihurtatzen dela pentsatuz eta prezio hobe batez zertxobait gehiago zabaldu daitekeela ikusiz.

Bestetik, eta oraingoz Elhuyar -en biltzen diren adar desberdinek separatzerik ez dagoenez, - ohizko sailak bereziki lantzea - eta modu egokiago batez azaltzeko bidea egin nahi dugu. OINARRIZKO IRAKASKUNTZARAKO MATERIALA izeneko sailean eskolen mundu zabalera zuzendutako lanak argitaratuko genituzke; TEKNIKA ETA TEKNOLOGIA izenekoan, berriz, in-

dustri munduari dagozkionak: ZIENTZI GAI OROKORRAK izenekoan aktualitateko gai zientifikoaren berri ematen saiatuko ginateke eta azkonik, UNIBERTSITATEA izenekoan goi-mailako ikasketei eta ikerketei dagozkien lanek ikusiko dute argia.

Sail horiek mantentzetik aparte, beste berri bat zabalduko da: JOLAS MATEMATIKOAK izeneko, alegia; bertan askotan ahazten den - Matematikaren aurpegi misterioitsu eta jostalari hori urratuko genutke.

Sail bakoitzari eman nahi izan diogun indar berriekin batera aldizkari osoaren idazteko tankera borobildu nahi da, gai bakoitzari dagokion idazte-modua bereziki landuz. Horretaz, interes tekniko berezi bat ez duten artikulua - era arinago batez, periodistikoagoa nonbait, ematen saiatuko gara.

Elhuyar aldizkariaren aurpegi berri hau gure irakurlegoa osatzen duzun gustokoa izango delakoan ekin diogu esfortzu honi; orain arte zuen aldetik izan dugun harrera beroak aldizkaria hobetzera bultzatzen gaitu, horrela, koetan biharko etorkizuna gaur dirudiena baino dexentez argitua izango delakoan.